hauteskundeak A21 2024 elecciones

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO 2024KO HAUTESKUNDEETAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZEARI BURUZKO TXOSTENA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

hauteskundeak A21 2024 elecciones

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO 2024KO HAUTESKUNDEETAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZEARI BURUZKO TXOSTENA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Gasteiz, 2026

ARGITALPENA

1.a, 2026ko iraila

©Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa

Segurtasun Saila

INTERNET

www.hauteskundeak.euskadi.eus

ZUZENDARITZA, KOORDINAZIOA ETA PRESTAKETA

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila

ARGITARATZAILEA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Donostia - San Sebastian, 1

01010 VITORIA-GASTEIZ

Eusko Legebiltzarrerako 2024ko hauteskundeetan emakumeen eta gizonen parte-hartzeari buruzko txostena

1. SARRERA 2

2. HAUTAGAI-ZERRENDEN OSAERA 3

2.1. Hautesbarruti eta alderdi politikoaren arabera 3

2.2. Ondorioak 6

3. ZERRENDABURUA 7

3.1. Hautesbarruti eta alderdi politikoaren arabera 7

3.2. Ondorioak 8

4. EUSKO LEGEBILTZARREKO LEGEBILTZARKIDEAK 9

4.1. Hautesbarruti eta alderdi politikoaren arabera 9

4.2. Ondorioak 11

5. HAUTAGAITZETAKO ORDEZKARIAK 12

5.1. Alderdi politikoaren arabera Euskadin 12

5.2. Ondorioak 14

6. ARTEKARIAK ETA AHALDUNAK 15

6.1. Artekariak 15

6.2. Ahaldunak 15

6.3. Ondorioak 16

1. SARRERA

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen du. Legegintzako Dekretu horrek Euskadiko botere publikoen esku uzten du neurri egokiak hartzea trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lortzeko erabakiak hartzeko eremu guztietan. Ordezkaritza orekatua dagoela ulertuko da sexu bakoitzeko kideek gutxienez %40ko ordezkaritza dutenean. Ordezkaritza orekatua parekotasunaren definizio matematiko eta operatibo gisa interpretatzen da, eta, horregatik, txostenean bi terminoak (ordezkaritza orekatua eta parekotasuna) baliokidetzat jotzen dira.

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legeak xedatzen du, alderdi politikoek, federazioek, koalizioek edo hautesle-elkarteek aurkezten dituzten hautagai-zerrendetan, sei izenen tarte bakoitzean, gutxienez %50 emakumeak izango direla. Ordezkoek (3 eta 5 artean), zerrendako 25. titularrarekin batera, gehienez sei izeneko tarte berri bat osatzen dute. Azken tarte horretan, aurrekoetan bezala, emakumeen presentzia gutxienez %50ekoa izan behar da.

Eusko Legebiltzarrerako 2024ko apirilaren 21eko hauteskundeak egin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak behin betiko emaitzak argitaratu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzak hauteskunde horietan emakumeen eta gizonen presentziari eta lortutako ordezkaritzari buruzko txostena egin du.

2. HAUTAGAI-ZERRENDEN OSAERA

2.1. Hautesbarruti eta alderdi politikoaren arabera

Eusko Legebiltzarrerako 2024ko hauteskundeetan aldarrikatutako alderdi politikoetako hautagaiak (titularrak eta ordezkoak) hautesbarruti bakoitzeko.

ARABA

Alderdi politikoa	Hautagaiak	Emakumeak	% Emakumeak	Gizonak	% Gizonak	Ordezkoak	Emakumeak	% Emakumeak	Gizonak	% Gizonak
EAJ-PNV	25	13	52	12	48	5	2	40	3	60
EB-AZ	25	13	52	12	48	3	2	66,67	1	33,33
EH BILDU	25	13	52	12	48	5	2	40	3	60
O.E.	25	13	52	12	48	3	1	33,33	2	66,67
PACMA	25	15	60	10	40	3	2	66,67	1	33,33
PODEMOS-AHAL DUGU - ALIANZA VERDE	25	13	52	12	48	3	1	33,33	2	66,67
PP	25	12	48	13	52	3	2	66,67	1	33,33
PSE-EE/PSOE	25	13	52	12	48	5	3	60	2	40
PUM+J	25	13	52	12	48	5	2	40	3	60
SUMAR	25	13	52	12	48	3	1	33,33	2	66,67
VOX	25	13	52	12	48	3	1	33,33	2	66,67
Guztira		144		131			19		22	



BIZKAIA

Alderdi politikoa	Hautagaiak	Emakumeak	% Emakumeak	Gizonak	% Gizonak	Ordezkoak	Emakumeak	% Emakumeak	Gizonak	% Gizonak
EAJ-PNV	25	13	52	12	48	5	2	40	3	60
EB-AZ	25	12	48	13	52	3	1	33,33	2	66,67
EH BILDU	25	15	60	10	40	5	3	60	2	40
IZAN	25	13	52	12	48	3	1	33,33	2	66,67
PACMA	25	15	60	10	40	3	2	66,67	1	33,33
PCTE / ELAK	25	13	52	12	48	3	1	33,33	2	66,67
PH	25	14	56	11	44	3	2	66,67	1	33,33
PODEMOS-AHAL DUGU - ALIANZA VERDE	25	15	60	10	40	3	1	33,33	2	66,67
PP	25	12	48	13	52	5	3	60	2	40
PSE-EE/PSOE	25	13	52	12	48	5	2	40	3	60
PUM+J	25	12	48	13	52	3	2	66,67	1	33,33
SUMAR	25	12	48	13	52	5	3	60	2	40
VOX	25	13	52	12	48	3	1	33,33	2	66,67
Guztira		172		153			24		25	



GIPUZKOA

Alderdi politikoa	Hautagaiak	Emakumeak	% Emakumeak	Gizonak	% Gizonak	Ordezkoak	Emakumeak	% Emakumeak	Gizonak	% Gizonak
EAJ-PNV	25	12	48	13	52	5	3	60	2	40
EB-AZ	25	12	48	13	52	5	3	60	2	40
EH BILDU	25	12	48	13	52	5	3	60	2	40
IZAN	25	13	52	12	48	3	1	33,33	2	66,67
PACMA	25	13	52	12	48	3	2	66,67	1	33,33
PODEMOS-AHAL DUGU - ALIANZA VERDE	25	15	60	10	40	3	2	66,67	1	33,33
PP	25	12	48	13	52	3	1	33,33	2	66,67
PSE-EE/PSOE	25	12	48	13	52	5	3	60	2	40
PUM+J	25	13	52	12	48	4	2	50	2	50
SUMAR	25	12	48	13	52	3	1	33,33	2	66,67
VOX	25	12	48	13	52	3	2	66,67	1	33,33
Guztira		138		137			23		19	



2024ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako hautagaiak (titularrak eta ordezkoak), sexuaren arabera, bai hautesbarruti mailan, bai Euskadi mailan.

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Euskadi	
	Zk.	%	Zk.	%	Zk.	%	Zk.	%
Emakumeak	163	51,58	196	52,41	161	50,79	520	51,64
Gizonak	153	48,42	178	47,59	156	49,21	487	48,36
GUZTIRA	316	100	374	100	317	100	1007	100



2.2. Ondorioak

Euskadin, Eusko Legebiltzarrerako 2024ko hauteskundeetako hautagaitzetan dauden emakumeen ehunekoa %51,64 da, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legeak ezartzen duen gutxienekoa (% 50) baino zertxobait handiagoa. Bizkaiak du emakume-hautagaien ehuneko handiena, %52,41 hain zuzen ere.

Hautagai titularren eta ordezkoen zerrendak aztertuta, ondorioztatzen da Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza lortu duten alderdi politiko guztiek araudiak ezarritako parekotasun irizpideak betetzen dituztela, baina emakumearen presentzia bultzatzeko gehieneko ehunekotik (%60) urrun daudela.

3. ZERRENDABURUA

3.1. Hautesbarruti eta alderdi politikoaren arabera

Eusko Legebiltzarrerako 2024ko hauteskundeetan alderdi politikoetako zerrendaburu diren hautagaiak, bai hautesbarruti mailan, bai Euskadi mailan.

ARABA

Alderdi politikoa	Emakumea	Gizona
EAJ-PNV		✓
EB-AZ		✓
EH BILDU		✓
O.E.	✓	
PACMA	✓	
PODEMOS-AHAL DUGU - ALIANZA VERDE		✓
PP		✓
PSE-EE/PSOE	✓	
PUM+J	✓	
SUMAR		✓
VOX	✓	

BIZKAIA

Alderdi politikoa	Emakumea	Gizona
EAJ-PNV		✓
EB-AZ	✓	
EH BILDU	✓	
IZAN		✓
PACMA	✓	
PCTE / ELAK		✓
PH		✓
PODEMOS-AHAL DUGU - ALIANZA VERDE	✓	
PP	✓	
PSE-EE/PSOE		✓
PUM+J		✓
SUMAR	✓	
VOX	✓	

GIPUZKOA

Alderdi politikoa	Emakumea	Gizona
EAJ-PNV	✓	
EB-AZ		✓
EH BILDU	✓	
IZAN	✓	
PACMA		✓
PODEMOS-AHAL DUGU - ALIANZA VERDE		✓
PP	✓	
PSE-EE/PSOE		✓
PUM+J	✓	
SUMAR		✓
VOX		✓

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Euskadi	
	Zk.	%	Zk.	%	Zk.	%	Zk.	%
Emakumeak	5	45,45	7	53,85	5	45,45	17	48,57
Gizonak	6	54,55	6	46,15	6	54,55	18	51,43
GUZTIRA	11	100,00	13	100,00	11	100,00	35	100,00



3.2. Ondorioak

Euskadin, 2024ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan zerrendaburu diren emakumeen ehunekoa %48,57 da.

Lurralde historikoei dagokionez, emakumea zerrendaburu izatearen joera aldatzen da hizpide dugun lurraldearen arabera eta baita ere zerrendak ordezkaritza lortu duen ala ez kontuan hartzen bada.

Araban eta Gipuzkoan zerrendaburu diren emakumeen ehunekoa %45,45 da, eta %53,85era igotzen da Bizkaian.

Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza lortu duten hautagaitzen kasuan, zerrendaburu diren emakumeen ehunekorik txikiena Arabak dauka (%33,33), hau da, ordezkaritza lortzen duten 6 alderdietatik 2k bakarrik dute emakumea zerrendaburu. Bizkaian, ehunekoa %50ekoa da, hau da, ordezkaritza lortu duten 4 alderdietatik 2k emakumea eta 2k gizona jarri dute zerrendaburu. Gipuzkoan, ehunekoa %75ekoa da, beraz, ordezkaritza lortzen duten 4 hautagaitzetatik 3k emakumea dute zerrendaburu.

4. EUSKO LEGEBILTZARREKO LEGEBILTZARKIDEAK

4.1. Hautesbarruti eta alderdi politikoaren arabera

2024ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen ostean, alderdi politikoek lortutako hautetsiak, bai hautesbarruti mailan, bai Euskadi mailan.

ARABA						Zerrendaburua	
Alderdi politikoa	Hautetsiak	Emakumeak	% Emakumeak	Gizonak	% Gizonak	Emakumea	Gizona
EAJ-PNV	7	4	57,14	3	42,86		✓
EH BILDU	8	4	50	4	50		✓
PP	4	3	75	1	25		✓
PSE-EE/PSOE	4	2	50	2	50	✓	
SUMAR	1	0	0	1	100		✓
VOX	1	1	100	0	0	✓	



BIZKAIA						Zerrendaburua	
Alderdi politikoa	Hautetsiak	Emakumeak	% Emakumeak	Gizonak	% Gizonak	Emakumea	Gizona
EAJ-PNV	11	5	45,45	6	54,55		✓
EH BILDU	8	5	62,5	3	37,5	✓	
PP	2	1	50	1	50	✓	
PSE-EE/PSOE	4	2	50	2	50		✓



GIPUZKOA						Zerrendaburua	
Alderdi politikoa	Hautetsiak	Emakumeak	% Emakumeak	Gizonak	% Gizonak	Emakumea	Gizona
EAJ-PNV	9	4	44,44	5	55,56	✓	
EH BILDU	11	5	45,45	6	54,55	✓	
PP	1	1	100	0	0	✓	
PSE-EE/PSOE	4	2	50	2	50		✓



	Eusko Legebiltzarra 2024. Osaera sexuaren arabera							
	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Euskadi	
	Zk.	%	Zk.	%	Zk.	%	Zk.	%
Emakumeak	14	56	13	52	12	48	39	52
Gizonak	11	44	12	48	13	52	36	48
GUZTIRA	25	100	25	100	25	100	75	100



4.2. Ondorioak

Euskadin, emakume-legebiltzarkideen ehunekoa %52ra iritsi da 2024ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen ostean.

Lurraldearen arabera, Arabak du emakume-hautetsien kopururik handiena, %56. Hurrengoa Bizkaia da, %52arekin. Gipuzkoak, ordea, %48 besterik ez du.

Eusko Legebiltzarraren osaeran betetzen da emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatuaren printzipioa.

5. HAUTAGAITZETAKO ORDEZKARIAK

5.1. Alderdi politikoaren arabera Euskadin

Alderdi politikoen administratzaile nagusiak Eusko Legebiltzarrerako 2024ko hauteskundeetan.

Alderdi politikoa	Administratzaile nagusiak		Ordezkoak	
	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona
EAJ-PNV		✓	✓	
EB-AZ		✓	✓	
EH BILDU	✓			✓
O.E.		✓	✓	
PCTE / ELAK		✓		
PODEMOS-AHAL DUGU - ALIANZA VERDE		✓		✓
PP		✓		
PSE-EE/PSOE	✓		✓	
PUM+J		✓	✓	
SUMAR		✓		✓
VOX		✓	✓	

Alderdi politikoen ordezkari nagusiak Eusko Legebiltzarrerako 2024ko hauteskundeetan.

Alderdi politikoa	Ordezkari nagusiak		Ordezkoak	
	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona
EAJ-PNV		✓		✓
EB-AZ		✓		✓
EH BILDU		✓		✓
IZAN		✓		✓
O.E.		✓		✓
PACMA	✓		✓	
PCTE / ELAK		✓		✓
PH		✓	✓	
PODEMOS-AHAL DUGU - ALIANZA VERDE		✓		
PP	✓			✓
PSE-EE/PSOE	✓		✓	
PUM+J		✓	✓	
SUMAR	✓		✓	
VOX		✓		✓

Alderdi politikoen lurralde-ordezkariak Eusko Legebiltzarrerako 2024ko hauteskundeetan.

Alderdi politikoa	Lurralde-ordezkariak		Ordezkoak	
	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona
EAJ-PNV	1	2	2	1
EB-AZ	1	2	0	3
EH BILDU	0	3	1	2
IZAN	1	1	1	1
O.E.	1	0	1	0
PACMA	2	1	3	0
PCTE / ELAK	0	1	0	1
PH	0	1	1	0
PODEMOS-AHAL DUGU - ALIANZA VERDE	1	2	1	2
PP	1	2	3	0
PSE-EE/PSOE	1	2	1	2
PUM+J	2	1	2	1
SUMAR	2	1	2	1
VOX	1	2	0	2

	Administratzaile nagusiak		Ordezkari nagusiak		Lurralde-ordezkariak	
	Zk.	%	Zk.	%	Zk.	%
Emakumeak	2	18,18	4	28,57	14	40,00
Gizonak	9	81,82	10	71,43	21	60,00



5.2. Ondorioak

Euskadin, hautagaitzen administratzaile orokor gisa hauteskundeetan parte hartu duten emakumeen ehunekoa %18 baino pixka bat handiagoa da, beraz, oso urrun dago ordezkaritza orekatuaren printzipioak ezartzen duen %40tik (printzipio horren arabera, ordezkaritza txikiena duen sexua gutxienez %40ra heldu behar da) eta baita ere Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko 5/1990 Legeak hautagai-zerrendak osatzeko eskatzen duen emakumeen gutxieneko %50etik.

Eusko Legebiltzarrerako 2024ko hauteskundeetan parte hartu duten alderdi politikoen emakume ordezkari orokorren ehunekoa %28,57 da; beraz, ez da lortzen hautagai-zerrendak osatzeko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legeak eskatzen duen ehunekoa (gutxienez %50 emakume), ezta ordezkaritza orekatuaren printzipioak ezartzen duen %40 ere. Irizpide hori Euskadi mailan eta hautagai-zerrendetako lurralde-ordezkarien kasuan baino ez da betetzen, emakumeak %40 baitira.

Ondoriozta daiteke, emakumeen presentzia bermatzeko gutxieneko ehunekoak betetzera behartzen duen araurik ez dagoenean, gizonen presentzia nabarmen nagusi dela oraindik ere.

6. ARTEKARIAK ETA AHALDUNAK

6.1. Artekariak

Artekariak Eusko Legebiltzarrerako 2024ko hauteskundeetako bozketa-egunean.

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Euskadi	
	Zk.	%	Zk.	%	Zk.	%	Zk.	%
Emakumeak	62	42,47	774	45,69	102	42,50	938	45,10
Gizonak	84	57,53	920	54,31	138	57,50	1142	54,90



6.2. Ahaldunak

Ahaldunak Eusko Legebiltzarrerako 2024ko hauteskunde-egunean.

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Euskadi	
	Zk.	%	Zk.	%	Zk.	%	Zk.	%
Emakumeak	888	39,31	3.766	42,80	1.897	44,09	6.551	42,65
Gizonak	1.371	60,69	5.033	57,20	2.406	55,91	8.810	57,35



6.3. Ondorioak

Eusko Legebiltzarrerako 2024ko hauteskundeetan, Euskadin emakume-artekarien ehunekoa %45etik gorakoa da, eta ordezkaritza orekatuaren printzipioak eskatzen duen gutxieneko %40a gainditzen du. Arabako eta Gipuzkoako ehunekoak antzekoak dira: %42,47 eta %42,50, hurrenez hurren. Bizkaia da emakume-artekarien ehuneko handiena duen lurralde historikoa: %45,69.

Beste aldetik, alderdi politikoetako ahaldun gisa parte hartu duten emakumeen ehunekoa %42,65 da. Emakume-ahaldunen ehunekorik handiena Gipuzkoak dauka (%44). Bizkaiak, berriz, %42,80 du. Azkenik, Arabako emakume ahaldunen ehunekoa %39,31 da; beraz, ez da iristen ordezkaritza orekatuaren printzipioak ezartzen duen gutxieneko %40ra.

Ondoriozta daiteke, emakumeen presentzia bermatzeko gutxieneko ehunekoak betetzera behartzen duen araurik ez dagoenean, gizonen presentzia nabarmen nagusi dela oraindik ere.